

ek!

eta kitto!
euskara elkarteak

2026ko urtarriak 23 · 1382 zenbakia

ANTZERKIA GERTUTIK BEGIRA

ELKARREKIN HAZI, HEZI ETA BIZI

La Salle
Elkar



**HAUR HEZKUNTZA,
LEHEN HEZKUNTZA
ETA DBH**

Matrikulazio epea: otsailaren 2tik 15ra
Informazioa: eta@zuzeneko.bizilag

lasalleelkar.eus

943202133 / 943121698

Kia Stonic berria.

Like erara gidatu.

Dani

Stooooonic

Laura



Movement that inspires

18.220€-tik

aurrera finantzatuta

Berdin dio zer egiten duzun. Ez du axola nora zoazen, beti izango duzu lagun bat berarekin erabat konektatuta egoteko: zure Kia Stonic berria. Mugi zaitetz askatasun osoz eta gozatu diseinu autentiko eta egungoaz. Igo zaitetz Like erara gidaraziko zaituen auto batera.



Apalategi, 1 EIBAR
943 70 70 33

gruponaiacar.com

WLTP isurketa konbinatuak (g/km): 122-128. WLTP kontsumo konbinatua (l/100km): 5,4-5,7.* PVPR Kia Stonic 1.0 T-GDI MHEV 100cv Concept (zergak, garraioa eta sustapen-ekintzak barne). Ez dira sartzen gestoriako eta matrikulazioko gastuak. Erabilitako ibilgailu bat Banco Cetelem SAUrekin Flexiplan kanpainaren bidez finantzatu eta entregatzen duten bezero partikularrei aplikatu beharreko eskaintza. Gutxieneko zenbatekoa 10.000 €-tik gorakoa edo finantzaketa-kontratua amaitzean ibilgailuaren etorkizuneko balio bermatua baino handiagoa izango da, eta gutxieneko epea 36 hilabetekoa izango da. Eskaintza hau ez da bateragarria beste finantza eskaintza batzuekin, eta 2026/01/31ra arte balio du.



Jarraitu gaitzazu!

BIDEOAK YouTubean ikusgai



Jarraitu aktualitatea gure webgunean eta sare sozialetan



Eskualdeari begira sortutako proiektu berritzaile batekin gatz, Debabarrenean gertatzen denari ahotsa eman eta tokiko errealitateak ikusgarri egiteko asmoz. Lehen saioan eskualdeko hizkeren aniztasuna izan dugu hizpide eta Mutriku, Deba eta Eibarren izan gara herritarrei haien hizkerari buruz galdetzeko.

www.etakitto.eus

eta kitto!
euskara elkarteak



ARGITARATZAILA

...eta kitto! Euskara Elkarteak

HELBIDEA

Urkizu, 11 - 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

aldizkaria@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Irati Alvarez, Ekhi

Belar, Ander Fernandez, Silbia

Hernandez, Irune Jaio eta Yanire

Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINU ARLOA

Irune Jaio

JATORRIZKO DISEINUA

Maku Oruezabal

HIZKUNTZA ARDURA

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA

Ander Fernandez

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALA

Eibarko Udala

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



Eskutitzak



Uhalik gabeko askatasuna, lotu gabeko errua

Urtarrileko zapatu ilun eta euritsua bare-bare esnatu zen, eta ni, ohiturari leial, txakurrarekin abiatu nintzen haren uhalak markatzen zuen distantzia zuhurrera. Lasai gindoa zen, harik eta beste txakur bat agertu zen arte: solte, mugarik gabe, bere jabearen arduratik askatuta balego bezala. Abisatu nion, hitz xumez baina premiaz: “Lotu ezazu”. Baina deiak ez zuen erantzunik izan.

Une batez, tentsioa airean geratu zen, zintzilik, eta gero eztanda egin zuen. Nire txakurrak, tentsio horren aurrean, niri hozka eginez erantzun zuen. Zazpi puntu ditut ordutik hankan.

Nor da erruduna? Ni ez, legea bete eta zentzua izan nuen heinean. Ezta nire txakurra ere, hizkuntzarik gabeko izakia baita. Errua txakurra uhalik gabe zeraman ardura-gabearena da, eta are gehiago, gertatutakoaren aurrean alde egitera “ausartu” zenarena.

Askatasuna ez da mugarik eza. Askatasuna zaintza da. Eta uhal bat, sarri askotan, giza zibilizazioaren azken lotura da.

Patrizia Marzana Uribarri

Hortik esanak



Euskal Herria eremu txikia denez, lan aukerak zailak dira. Emakumea bazara, are zailagoa da eremu horretara heltzea, eta, gainera, askotan talde handiei baizik ez zaie egiten lekua. Horien barnean badaude emakumeak, baina ez zaie ematen gizon taldeei bezalako lekurik. Nahiz eta 2005ean onartu zuten [Araba, Bizkai eta Gipuzkoako] Berdintasun Legea eta kultur arloa barne izan, ikusten ari gara ia-ia ez dela aplikatzen. EAEen, esate baterako, BBK Live eta Donostiako Jazzaldia kontuan hartuta, emakumeen presentzia %18koa bakarrik da.

IRAIA CAMBRA, kazetaria

Bertsogintzak ezin du albo batera utzi bere dimentsio herrikoia. Bertsolaritzak hanka bat du eszenatokian, eta beste bat eguneroko bizitzan, eta askotan bien artean dabil. Egia da, bestalde, bertsogintzaren alderik espontaneoena asko ahuldu dela azkeneko hamarkadetan; herri euskaldun batzuetan ohikoa zen kalean batzuk besteekin bertsotan hastea. Lehen inprobisazio bulkada asko desagertu da. Ahoz kotasunarekin lotuago zegoen belaunaldi bat joan delako ere bada. Horrekin batera, bertsolaritzaren ikuskizun parteak asko sofistikatu da. Bertsolariari testu sofistikatu bat eskatzen zaio ganbarako ariketan, narrazio oso bat. Baina bertsolaritza izango al da egunen batean soilik eszenatokian gertatzen dena?

KEPA MATXAIN, ikerlaria

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

PLANTAK EGIN → Papeladia egin. “Zoro plantak egitten dihardu, soldautzara ez juateko”.

PLASTADA → Eskua zabalik dagoela ematen den belarriondokia. “Plastada batekin ixildu eban”.

Paletakada. Igeltseruek-eta, paletarekin hormara jaurtitzen duten igeltsu edo porlan zatia. “Iraltzeruak plastada bittan barriztu eban labia”.

1966

Santa Agedaren omenezko kalejira

Argazkiari begira, otsailaren 9an Santa Ageda ospatzeko Eibarren egin zen kalejira benetan jendetsua izan zela begibistakoa da. Orduan ere baserritar jantzita irtetzen ziren santaeskean, makila eskuan, baina badirudi koplak kantatzeko ohiturak orain baino sustrai sendoagoak zituela.

FOTOPLAZAOLA



Farmaziak

- BARIXAKUA 23
- EGUNEZ | Elortza (Juan Gisasola, 18)
- ZAPATUA 24
- EGUNEZ | Castaño (J. Etxeberría, 7)
- DOMEKA 25
- EGUNEZ | Mendiñueta (Urkizu, 6)
- ASTELEHENA 26
- EGUNEZ | Elortza (Juan Gisasola, 18)
- MARTITZENA 27
- EGUNEZ | Zulueta (San Agustín, 5)
- EGUAZTENA 28
- EGUNEZ | Zulueta (San Agustín, 5)
- EGUENA 29
- EGUNEZ | Castaño (J. Etxeberría, 7)
- BARIXAKUA 30
- EGUNEZ | Azkue (T. Etxeberría, 4)

GAUEZ BETI, 2026an,
Elortza (Juan Gisasola, 18)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- Cristina Gallastegi Arana. 96 urte. 2026-I-15.
- Luis Angel Marquina “Marki”. 78 urte. 2026-I-16.
- Enrique Franco Albizuri. 100 urte. 2026-I-16.
- Pilar Iriondo Baqueriza. 104 urte. 2026-I-18.



Zortzi urteko borroka ospatzeko manifestazioa egin dute pentsiodunek

S.H. Euriari eta hotzari aurre eginenez, zapatu eguerdian eskualde mailako manifestazioa egin zen Eibarren, Eibarko Pentsionisten Taldeak deituta, Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduaren 8. urtemuga ospatzeko. Manifestazioa Untzagatik abiatu eta bertan amaitu zen, Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak ur-

temugaren harira egindako komunikatua irakurrita. Zortzi urte hauetako borroka eta horri esker lortutakoa gogora ekartzeaz gain, argi laga zuten aurrera begira borrokatzen jarraituko dutela, eta martxoaren 17rako deituta dagoen Greba Orokorrearekin bat egiteko deia zabaltzeko aprobetxatu zuten ekitaldia.

Pegora Herriarren Arretarako Bulegoak ordutegi berria dauka

S.H. Hilabete honetan aldatu dute Pegora Herriarren Zerbitzurako Bulegoaren arratsaldeko ordutegia. Orain arte arratsalde zabalik egoten zen astelehen, martitzen eta eguaztenetan, baina martitzen arratsaldetan zabaltzeari laga diote eta, beraz, orain astean birritan, astelehen eta eguaztenetan zabaltzen dute bulegoa, egun osoan eten barik, 08:30etik 19:00etara. Martitzen, eguen eta barixakuetako ordutegia, berriz, 08:30etik 14:30era bitartekoa da.



Ego-Gaineko autobus geltokirako itxarongela egingo dela iragarri du Udalak

S.H. Ego-Gaineko autobus geltokian itxaroteko lokal berri bat doitu dela iragarri du Eibarko Udalak. Azaldu dutenez, 100 metro koadroko itxarongelak komunak, takillak eta ibilbideen inguruko informazioa eskaintzeko zerbitzuak izango ditu. Udalak jakinarazi duenez, proiektua planifikazioaren azken fasean dago, eta 350.000 euro inguruko kostua izango du. Obraren zati bat Eusko Jaurlaritzaren LJE funtsen bidez finantzatuko da. Obrak datozen

hilabeteetan hasia aurreikusten da, eta itxarongela aurrean bertan erabilgarri egotea espero da. Adierazi dute proiektu honek herritarrek aspalditik egindako eskaera bati erantzuten diola, eta autobus zerbitzua erabiltzen duten ikasle, langile eta bisitarien egunerokoa erraztea duela helburu. Espazioak bi sarbide izango ditu, Ego-Gain kaletik (supermerkatuaren ondoan) eta San Andres pasealekutik (Ardantzako tren-geltokiarekin konektatuz).



Urtarrilaren 31n inauguratuko dute Amaña eta Legarreko Adinekoen Zentro berria

S.H. Eibarko Udalak Amaña eta Legarreko Adinekoentzako Zentro Sozial berria inauguratuko du urtarrilaren 31n, Torrekua eraikinean. Jon Iraola alkateak jakinarazi duenez, obrak azken txanpan daude, eta otsailetik aurrera zentroa martxan egongo da. Alkateak sare sozialetan zabaldutako bideo batean azaldu duenez, Torrekua eraikina erabat berritu da, auzoko bizilagunekin hartutako konpromisoari erantzunez: “Zentro berria irisgarria eta modernoa da, eta adinekoen erosotasuna, jarduera eta ongizatea sustatzeko pentsatuta dago”. Eraikinak hainbat gune izango ditu: ikasgelak, kafe-tegia eta hainbat espazio, besteak beste, Goyeneche Fundazioarentzat, Gurutze Gorriarentzat, eta Ikasten elkartearentzat. Une honetan, kafe-tegiaren azken lanak egiten ari dira, inaugurazio-egunerako dena prest egon dadin.

nez: “Zentro berria irisgarria eta modernoa da, eta adinekoen erosotasuna, jarduera eta ongizatea sustatzeko pentsatuta dago”. Eraikinak hainbat gune izango ditu: ikasgelak, kafe-tegia eta hainbat espazio, besteak beste, Goyeneche Fundazioarentzat, Gurutze Gorriarentzat, eta Ikasten elkartearentzat. Une honetan, kafe-tegiaren azken lanak egiten ari dira, inaugurazio-egunerako dena prest egon dadin.

Euskal kantuak ikasteko saio irekiak egingo dituzte Kultun hamabostean behin

S.H. Aurreko astean itzuli ziren euskal kantuak ikasi eta praktikatze-ko Arrate Kultur Elkartearen egiten diren saio irekiak. Hurrengo saioa datorren astean, urtarrilaren 26an izango da, 19:00etan elkartearen lokaletan. Antolatzaileek herritar guztiak parte hartzera animatu nahi dituzte, saioak lagunarteko giroan egiten dituztela azpimarratuz. Saioak hamabostean behin izango dira, astelehenetan beti, 19:00etan hasita. Informazio gehiago nahi izanez gero 638 284 912 telefono zenbakira deitu dezakezue.



ESKERTZAK ETA URTEURRENAK
Urkizu, 11 - solairuartera
688 62 76 89
publizitatea@etakitto.eus

FUNEUSKADI
Trucio Asentua

FUNERARIA MUGICA
Funerariak

TANATORIO EIBAR
TANATORIO ERRENTORIO
ERRENTORIO

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Eibar: Otaola, 27	Elgoibar: Xixillon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)
Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20	Ermuaiko bulegoa: Marqués de Valdespina, 16

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao



Ustekabe txarangakoak Donostiako Danborradan egon dira aurten ere

S.H. Azken urteotan bezala, aurten ere Donostiako Danborradan parte hartzen egon dira Ustekabe Eibarko txarangakoak: “2012tik hona urterot hartu dugu parte Donostiako danborradan. Lehen bi urteotan Altzako konpainia batekin batera, eta 2014az geroztik erdialdeko beste batekin, goizaldeko lehen orduetan”. Aurten Grosen aritu dira eibartarrak, Irrintzi danborradarekin, eta jaia amaitu orduko jaso dute 2027rako gonbidapena.



Txistorra Egunean zozketatutako 200 euroko erosketa-txartela entregatu diote Fernando Azpiazu saridunari

S.H. Eibarko Txirrindulari Elkarteak iazko azaroan ospatutako Txistorra Egunean egindako zozketan, Fernando Azpiazuri egokitu zitzaion Oberena harategian gastatzeko 200 euroko erosketa-txartela. Saridunak aurreko astean jaso zuen saria, Angel Lopez Txirrindulari elkarteako presidentearen eta Oberena harategiko Juanma Gimenezen eskutik. Zorionak eta on egin!

Kaleratu dute ‘K Bitamina’ bideopodcastaren hirugarren atala

S.H. Gabonen ostean, urtarrilaren 7an abiatu zuen Udalak ‘K Bitamina’ - Eibarrek behar duen bitamina’ bideopodcastera, herriko merkataritzari ikusgarritasuna eman eta saltokien atzean dauden pertsonen istorioak ezagutarazteko asmoz. Guztira hamar saltokiren istorioak jasoko ditu proiektuak: atal bakoitzean dendarien ibilbidea, egunero erroak, eta herriko ehun sozial eta ekonomikoan egiten duten ekarpena izango dira ardatz. Bideopodcastaren atalak eguaztenero argitaratuko dira, eta sare sozialen bidez zabalduko dituzte. Halaber, Eibarko Udalaren YouTube kanalean ikusi ahal izango dira.



Urteko lehen zuhaitz landaketa domekan

S.H. Eibarko Baso Biziak elkarteak urteko lehen landaketa egingo du domekan (urtarrilak 25), elkarteak Erianon dauzkan lursailetan, eta lan horretan lagundu nahi duten herritarrentzat gonbidapen irekia egin dute: “Goizeko 10:00etan geratu gara Asola-Berri elkarteak, eta handik oinez igoko gara landaketa gunera. Zuen laguntza behar dugu bertako basoak berreskuratzeko”.



UXUE GISASOLA

Urtarrilaren 31n denok Bilbo eta Iruñeara

Autoritarismoak, erreakzioak eta faxismoak gure artean geroz eta presentzia handiagoa daukate.

Azkenaldian, mundu mailako herrialde askotan eskubide zibil zein politikoen aurkako erasoak ikusi ditugu, ultraeskuinak instituzioetan bere lekua egin du eta gobernu batzuetara heldu da (AEB, Argentina, Italia...), pertsona migratuen aurkako neurriak gogortzen ari dira Europa osoan, Frantziako gobernuak soldaduzka boluntarioa martxan jarri du. Horretaz gain, antolakunde faxistak kale mailan hedatzen ari dira (horien artean Desokupa eta Nucleo Nacional).

Faxismoak beste lurralde batzuetan baino presentzia gutxiago duen arren, Euskal Herria ere ez dago joera horietatik kanpo. Are gehiago, hemen ere badago euskal nortasunaren izenean agertzen ari den faxismo mota bat. Bai sare sozialetan, bai kaleko hormetan; eta mezu arrazista, supremazista eta matxistekin lotuta doa.

Era berean, ezin dugu ahaztu, segurtasunaren aitzakipean normalizatzen ari den sektore zaurgarrien kontrako kriminalizazioa; hala nola, PSOEk edo PNVk hartu duten bidea elektoralki indartzeko.

Diskurtso horiek pobretze testuinguru honen kausak eta erantzuleak ezkutatzeko balio dute, erantzunkizuna eta errua sektore zaurgarrienetan jarritz.

Hala, ideia erreakzionarioak, estatuen erreforma autoritarioak eta faxismoa bera indarra hartzen ari diren garai honetan lehentasunezkoa da horren aurkako kontzientzia garatzea, kontrakoak ideia horiek normalizatzea eragin dezakeelako.

Politika erradikalaren garaia da, kaleak betetzeko, eta antifaxismoa eduki komunistaz betetzeko unea da. Horregatik da hain garrantzitsua gazteen artean hegemonia antikapitalista bermatzea Euskal Herrian eta ahal den toki denetan. Bilbo eta Iruñea jendez betetzeko betebeharra daukagu hilaren 31n, segi dezagun horretan.

Eibartik autobusean joango gara Bilbora, 16:40koan Ego-Gainetik abiatuta. Animatuz gero, idatzi sare sozialetatik edota GKS-ko militanteei. Animatu eta gerturatu!

“Hemen ere badago euskal nortasunaren izenean agertzen ari den faxismo mota bat. Bai sare sozialetan, bai kaleko hormetan; eta mezu arrazista, supremazista eta matxistekin lotuta doa”



Antzerkira itsasoratzeko gonbidapenarekin datoz Jardunaldiak

Urtarriletik martxora bitartean kaleko antzerkia, komedia, drama, tragikomedia, dantza, pailazoak, haurrentzako ikuskizunak eta hausnarketarako jarduerak biltzen dituen programazioaz gozatzeko aukera izango dugu. 2013an Uni Kultur Elkartearen eskutik erreleboa hartu zuenetik, Eibarko Udalak antolatzen ditu jardunaldiak, Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin, eta aste honetan aurkeztu dute 49. edizioa.

Eibarko Antzerki Jardunaldiek 24 konpainiaren lanak ekarriko dizkigute, tartean euskarazko sei antzezlan, eta Coliseo zein Uni Eibar-eko oholtzara igoko diren aktoreen zerrenda luzea bezain aberatsa da: Ane Gabarain, Nerea Mazo, Ane Pikaza, Andrea Jimenez, Gema Matarranz, Txubio Fernandez, Ramon Aguirre, Mikel Laskurain, Millan Salcedo, Joseba Apaolaza... Eibartarrak edo oso gertukoak diren hainbatek ere hartuko dute parte: Jone Laspiur, Maite Lorenzo, Irene Hernando, Juanma Cano, Ricardo Izagirre eta Imanol Arias bera.

Jardunaldiek, aurtan ere, gizakiok istorioak kontatzeko eta entzuteko dugun premian jarriko dute enfasia: "Gatazkaz betetako istorioak, musika-konposizioen melodia gisa funtzionatzen dutenak. Gonbidatzen gaituztenak emozioan, hausnarketan, enpatian... murgiltzera. Bakardadeaz hitz egiten duten istorioak, eguneroko heroitasunaz, komediaren oinarri diren baldarkeriaz eta porrotaz, genero-trantsizioaren identitateaz, herrien identitateaz, eguneroko bizitzaren porrotez, gizakien esplotazioaz, maitasun erromantikoaren kritikaz, emakume saregileen sororitateaz, edo Gloria Fuertes guardiako poetaren unibertsoaz".

Kartela Juan Luis Baroja Colletek diseinatu du, Homeroren "Odisea" gogoan, bere unibertso eta pertsonaiekin batera nabigatzeko gonbidapena bailitzan.

Urtarrilaren 23an eta 24an hasiko dira jardunaldiak, Lekim konpainiaren kaleko antzerkiarekin: aurtan ere alfonbra gorria ipiniko diete herritarrei, antzerkira joateko gonbitea egitearekin batera. Jardunaldien irekiera ofiziala, berriz, otsailaren 9an izango da, Imanol Arias protagonista izango duen solasaldian. "La casa" izenburuari jarraituta egingo du berba, Irene Hernandok aurkeztuta. Coliseo antzokian izango da, 19:00etan, eta sarrera librea izango da.

Antzerki Jardunaldietako sarrearen aurrealmen-tarako hitzorduak banatzen atzo hasi ziren, eta gaur ere hala egingo dute, 17:30etik 19:30era Coliseoko leihatilan. Aurrealmenta, berriz, bihurtik aurrera, urtarrilaren 24an, 25ean eta 26an egingo da, 10:00etatik aurrera (lehiatilan aldeztu aurretik banatutako hitzorduen arabera). Eta urtarrilaren 26tik aurrera, astelehen eta barixakuetan erosi ahalko dira sarrerak leihatilan, 17:30etik 19:30era. Eta Internet bidezko salmenta urtarrilaren 24an, 10:00etan hasiko da.



01/23
19:30/21:30
01/24-25
12:30/14:30
Kalez-kale

Antzerki
jardunaldiak
LEKIM
Konpaniarekin



02/09
19:00
Coliseo

Solasaldia
LA CASA
IMANOL
ARIASEN
eskutik

02/10-11
19:00
Coliseo

MEJOR NO DECIRLO

Pentación
Espectáculos



02/18
19:00
Coliseo

Euskaraz
KANDIDA
Tartean Teatroa



02/21
19:00
Coliseo

CASTING LEAR

Barco
Pirata



02/22
19:00
Uni Eibar

CONTRA ANA
Cía. La Contraria

02/24
19:00
Coliseo

Euskaraz NOR NAIZEN BANEKI

Axut! eta
Artedrama



02/26
19:00
Coliseo

DYSPHORIA
Histrión Teatro





02/27
19:00
Uni Eibar

**EL PEOR
ESPECTÁCULO
DEL MUNDO**
Zanguango Teatro



02/28
17:00
Coliseo

Euskaraz
**HODEI GUZTIEN
GAINETIK**
Markeliñe



03/01
19:00
Uni Eibar

Euskaraz
**LOREEN
HIZKUNTZA**
La Mapatxa



03/03
19:00
Coliseo

LA BARRACA
Teatro de Malta,
Pentación
Espectáculos



03/05
19:00
Coliseo

**HASTA EL
ÚLTIMO
BAILE**
Eva Guerrero



03/07
12:30 Untzaga-Errebal
19:30 Errebal-Untzaga

QUIMERA
La Fam Teatre



03/07
17:00
Coliseo

**A LA GLORIA
CON GLORIA
FUERTES**
Teatro de Malta



03/10
19:00
Coliseo

Euskaraz
KAKA
Erika Olaizola
& Xanti Agirrezabala



03/11
19:00
Coliseo

**ANTZERKIA
PANTAILETAN**
Asier Errasti
film Laburren Jaial-
diko laburmetraiak



03/14
19:00
Coliseo

PREGUNTAMELÓN
Millán Salcedo



03/15
19:00
Uni Eibar

Euskaraz

KOLAPSOA

Erika Olaizola
& Xanti Agirrezabala



03/17
19:00
Coliseo

52 HERCIOS

Ados Teatro

03/18
19:00
Coliseo

EL DRAGÓN DE ORO

Sarabela Teatro



03/21
19:00
Coliseo

JASÓN Y LAS FURIAS

Teatro del Noctámbulo



03/22
19:00
Uni Eibar

CANTANDO BAJO LAS BALAS

Luna Hiena



03/24
19:00
Coliseo

R&J

Dramática Errante

03/25
19:00
Coliseo

EGIN BEDI ZURE NAH-IA

Dantzerti-ko 4.
mailako ikasleak



03/26
19:00
Coliseo

Euskaraz

ZANBUILA

Lolak kolektiboa



03/27
19:00
Coliseo

EL ENCARGO

La Red Teatro

Urtariletik
martxora arteko
egitarau osoa

San Blas eguna Eibarren: opilaren bueltan eraikitako ohitura bizia

Testua **IRATI ALVAREZ**

Anisaren usaina eta opil borobilak dira otsailaren hasieraren adierazleak Eibarren. Sinesmenetik harago, San Blas eguna belaunaldiz belaunaldi transmititu den ohitura bizia da, etxetik kalera eta kaletik mahaira iristen dena. Isilean, herri izaeraren parte izaten jarraitzen du.



Otsailaren 3ak badu usain berezia Eibarren: anisarena, labe beroarena eta etxeetan aspaldiko errezetak berpizten dituen giroarena. San Blas eguna ez da jaiegun handia egutegian, baina bai herri-tarren egunerokoan ondo erro-tutako data. Urtero, belaunaldiz be-launaldi transmititu den ohitura bat berritzen da.

San Blas opila da egunaren ikur nagusia. Opil borobila, anis zapore-duna, etxe askotan oraindik ere es-kuz egina, eta beste askotan herriko okindegietan erositakoa. Goizetik hasita, poltsatan edo zapitan bil-duta ikusten dira opilak, elizarako bidean. Izan ere, Eibarren ohikoa izan da San Blas egunean opilak bedeinkatzera eramatea; tradizioz, eztarriko gaitzen aurkako babesare-kin lotu izan da, nahiz eta gaur egun askok ohitura hutsez edo modu sin-bolikoan jarraitu.

Sinesmenetik kulturara

Denborarekin, San Blasen esanahia ere aldatu da. Lehen sinesmen erli-jiosoari lotuago bazegoen ere, gaur egun gero eta gehiago da kultura-ohitura, identitate keinu txiki bat. Askok ez dute sinesten opilaren babes-ahalmenetan, baina bai tra-dizioari eustearen balioan. Herri-tarrek adierazi digutenez, San Blas eguna “betidanik” egin izan den ohitura bat da askorentzat, etxean ikasia eta otsailaren hasierari lo-tua, urtero errepikatzen den erritu txiki gisa.

Horregatik, San Blas ez da iraga-neko kontua. Eguneroko erritmo azkarrean, denborari eusten dion ohitura da: ez du jaialdi handirik behar, ezta egitarau zabalik ere. Opila, data eta partekatze gogo-a nahikoa dira.

San Blas eguna bizirik kalean

Denborarekin, San Blasen esanahia

Eibarko San Blasen kalitatea eta berezkotasuna ia aho batez goraipatzen dute herritarrek

San Blas eguna gerturatzearekin batera, mugimendua nabaria da Eibarren. Dendariek berehala nabari dute sasoiaren etorrera: anisaren eta irinaren salmenta handitzen da, eta San Blas opilak ehunkadaka saltzen dira. Gaur egun ia urte osoan aurki daitezkeen arren, sasoirik indartsuena otsailaren bueltan izaten da. Askoren gustukoenak etxeko opilak dira, amaren edo amamaren errezetarekin egindakoak, nahiz eta denbora faltagatik gero eta gehiago erosten diren.

Gazteek ere ohitura bere egiten jarraitzen dute. Kalera irten gara eta bi neska gaztek adierazi digute San Blasak egun batzuk lehenago prestatzen dituztela etxean, on-

doren poliki-poliki jateko. Kalean munduko San Blas opilak hoberena nongoa den galdetuta, Eibarko San Blasen kalitatea eta berezkotasuna ia aho batez goraipatzen dute herritarrek, eta familian edo lagun artean partekatzeko aitzakia ederra dela azpimarratzen dute.

Ohitura erlijiosoak, berriz, pixkanaka bigarren plano batera igaro dira, baina belaunaldi zaharrenean presente jarraitzen dute: opilak elizara eramatea edo kordioaren ohitura oroitzapen gisa gordetzea ohikoa da oraindik.

Ohitura txikiek egiten dute herria

Eibarren, San Blas ez da ikusgarritasun handiko festa, baina bai herri izaera islatzen duen une bat. Isilean, apalean, baina tinko iraun duen tradizioa da. Aldaketetara egokitu arren, funtsa galdu ez duen horietakoa.

Urtez urte, otsailaren 3an, opilaren bueltan elkartzen da herria. Batzuek fedez, besteek ohituraz, baina denek memoria kolektibo baten parte sentitzeko. San Blas, azken finean, Eibarko eguneroaren kapitulu txiki baina esanguratsu horietako bat da.



Sanblasak, pastelak, ogia, kafea, edariak, pintxoak...

Kalitatezko produktuak dastatu nahi?

Legarre, 19

Carte

943 53 87 87

HEMEN DUZU AUKERA!

ITXESI BIDEBARRIETA, 6 Tel 943 203219

Sanblas tradizionalak, integralak eta gluten gabekoak

iSASI OKINDEGIA

DENDAK

- Ego-Gain, 2 943 20 23 40
- Zabaleta Bidebarrieta, 10 943 20 02 25

- Elgetako bidea 9 943 70 07 77

LANTEGIA

TIBURZIO ANITUA, 6 Tel 943 20 04 04

Lubizarreta

Panaderia Okindegia

Ama ore naturalarekin egindako ogia, sanblasak etab.

...eta kitto! EUSKARA ELKARTEA: 34 URTEKO KONPROMISOA, ETORKIZUNARI BEGIRA

Aro berri batean sartu gara. Berrikuntzaren bidetik, lan egiteko moduak eguneratu ditugu, diseinu berriak estreinatu ditugu, proiektu berriak jarri ditugu martxan eta lantaldea berritu dugu. Aldaketak nabariak dira, barrura zein kanpora begira. Hala ere, funtsean, dena ez da aldatu: duela 30 urte baino gehiago izan genuen helburu berari eusten diogu gaur ere, euskararen alde jarduteari.

Horixe izan da hasieratik ...eta kitto! Euskara Elkartearen ardatza: euskararen erabilera eragitea, Eibarko euskaldun-komunitatea saretzea, sendotzea eta gure hizkuntza hedatzea. Euskararen normalizazioa ez da, tamalez, iraganezko erronka; eguneroko lana da, eta horretan denok dugu zer eman eta zer jaso.

Gaur egungo erronkei aurre egiteko, berrikuntza-prozesu sakon batean murgildu gara. Erredakzioa berritu dugu, lantalde berriak osatu ditugu, lan-prozesuak eguneratu eta diseinu berriarekin aurkeztu gara. Elkartea ez da hedabide hutsa: ...eta kitto!-ren barnean hainbat programa eta proiektu garatzen dituen taldea dago, betiere euskararen normalizazioa helburu. Asmo hori betetzeko tresna da hedabidea.

Tokiko kazetaritza eguneratzea eta hedabidearen berritasunak

Gure proiektu komunikatiboan, kazetariak sortzen dituzten edukiek ahalik eta eraginkortasun handiena izatea da helburu nagusietako bat. Hain zuzen ere, informazioa sortzea bezain garrantzitsua da hura nola eta non zabaltzen den. Horregatik, galdera nagusi bati erantzun behar izan diogu: nola jarraitu erreferente izaten, informatzeko moduak, ohiturak eta kanalak etengabe aldatzen ari diren testuinguru honetan?

Testuinguru berrira egokitzeke lanean dabil ...eta kitto! Euskara Elkartea. Bide horretan, gure kazetaritza-lana egungo formatueta- ra egokitzen ari gara, kalitatea eta zorroztasuna galdu gabe.

Paperezko astekariari dagokionez, gaur egun 7.800 ale banatzen

ditugu Eibarko etxe eta establezimenduetan, eta 200 ale inguruko herrietan. Astekarian berritasun nabarmenak egiten hasi gara, txandaka argitaratuko ditugun sekzio berriak eta diseinuak lagundutako erreportajeak, esaterako.

Paperezko edizioak gure komunikazio-proiektuaren zutabe izaten jarraitzen badu ere, azken urteotan jauzi kualitatibo eta kuantitatiboa egin dugu eremu digitalean. Diseinu berriarekin, aldizkaria, webgunea eta sare sozialak elkarrekin uztartzea da gure asmoa. Helburua ez da itxura aldatzea bakarrik, baizik eta edukiak irakurtzeko eta ulertzeko errazagoak izatea. Hori da gure elkartearen erronka nagusia gaur egun: edukiak egungo baliabideetara ondo egokitzea.

Sare sozialetan, aldiz, gure ikusentzunezkoen laguntzaz digitali-

>>> ...eta kitto!ko
lantaldea osatzen
dugun programetako
teknikari, administrari,
kazetari, komertzial,
diseinatzaile,
IKT teknikari eta
koordinatzaileak.



Atzean: Maider Aranberri, Ane Lizarralde, Leire Carretero, Ander Fernandez, Irati Alvarez, Irune Jaio, Oihane Zabala, Naia Aizpurua eta Ainara Labado Aurrean: Ekhi Belar, Idoia Labado, Ana Aizpurua, Silbia Hernandez eta Marisol Uriarte.



Debabarreneko proiektuan lehen pausoa eman dugu, eta lehenengo saioan eskualdeko hizkeren inguruan aritu gara.

zatzen dugu edukia. Gaur egun ondorengo sare sozialak ditugu: Instagram, TikTok, Facebook eta X. Sare sozial horiek astekarrian zein webgunean egongo diren edukiak modu irisgarriagoan jasotzeko eta webgunera bideratzeko aukera ematen dute, webgunean izango den edukiaren osagarri gisa.

Instagram kontuak du pisu handiena gurean, eta beraz, lanketa berezia egin dugu bertan. Berritasunen artean, izena aldatu diogu kontuari: lehen 'gaztekitto' izena zuen kontua 'etakitto.eus' da orain. Modu berean, aktualitateko gaiak lantzeko moduak eguneratu ditugu (kale galdeketa gehiago egiten hasi gara, esaterako). Horri lotuta, diseinua ere egungo eduki eta beharretara egokitu dugu, eduki-mota bakoitzerako diseinu propioa sortuz.

Edukia zabaltzeko bestelako euskarriei dagokienez, Telegram

>>> Euskararen normalizazioa ez da, tamalez, iraganeko erronka; eguneroko lana da, eta horretan denok dugu zer eman eta zer jaso.

>>> Funtsean, dena ez da aldatu: hasieran izan genuen helburu berari eusten diogu gaur ere: euskararen alde jarduteari.

eta WhatsApp kanalak sortu ditugu. Horien bitartez herritarrek aktualitateko albiste, bestelako eduki eta elkartearen inguruko berrien zerrenda modu azkar eta gertukoan jasotzeko aukera dute. Edonork du difusio-kanal horietan zuzenean doan harpidetzeko aukera.

Hekimen Euskal Hedabideen elkartearen laguntzaz, Adimen Artifizialarekin lehen urratsak egiten

hasi gara. Hedabideen elkarteak bazkideentzat sustaturiko tresna bat jarri du eskura, eta tresna horrek dakartzan aukerak probatzen gabiltza.

Elkartea eta lantaldea

Hasieran esan bezala, hedabidea elkartearen tresnetako bat da eta, hedabideaz gain, elkarteak, euskararen normalizazioa helburu, bere proiektu propioak garatzen dihar-

du hasiera-hasieratik. Gaur egun hainbat proiektu sustatzen ditu: mintzapraktika egitasmoak, familia-giroko euskalduntzea, harrera eta elkarbizitza programak, merkataritza eta ostalaritza euskararen erabilera sustatzeko ekimenak, irakurzaletasuna bultzatzeko proiektuak eta herrigintzarekin lotutako jaialdi eta ekitaldiak. Herriko eragile ezberdinekin egiten dihardugun elkarlana ahaztu gabe: emakumearen mahaia, euskalgintza, Akebai... Zerbitzuak ere eskaintzen ditugu, hala nola itzulpenak, aholkularitza eta euskara-planak edota sentsibilizazio-saioak.

...eta kitto! Euskara Elkartea proiektu desberdinetan parte hartzen duen lantalde zabal eta diziplinarteko batek sostengatzen du: Maider Aranberri, Ana Aizpurua, Silbia Hernandez, Ekhi Belar, Irati Alvarez, Naia Aizpurua, Yanire Sagredo, Oihane Zabala, Ander Fernandez, Ane Lizarralde, Idoia Labado, Leire Carretero, Irune Jaio, Marisol Uriarte eta Ainara Labadok, hain zuzen.

Debabarrena: eremu estrategikoa

Azken urteotan eskualde mailako lanketa- eta bateratze-prozesuan ere parte hartu dugu, Debabarrenean euskarazko hedabideen arteko elkarlana indartzeko helburuarekin. Hainbat ahalegin eta prozesu luze baten ostean, gure bide propioari ekin diogu. Esperientzia horrek, ordea, urtebete luzeko hausnarketa estrategiko sakona egitera eraman gaitu, elkartearen proiektuaren izaerari, autonomiari, erabakiak hartzeko moduei eta balioei buruzkoa. Hausnarketa horren ondoren, eta elkarreko organoek hala erabakita, ... eta kitto!-k bere proiektu propioa sendotzearen aldeko apostua egin



Sare sozialetan informazioa helarazteko formatu berriak lantzen ari gara.



Eibarko euskal-komunitatearen ahotsa handitzen dihardugu.



Gure edukiak digitalki zabaltzeko modu berriak lantzen hasi gara.

du, eskualdea estrategikotzat jotzen jarraituz eta beste eragileekin elkarlanerako ateak zabalik eutsiz, baina gure ibilbidea modu autonomoan garatuz.

Ildo horretan, proiektu berri bat sortu dugu Debabarrena mailan. Webgunean dagoeneko aktibo dagoen atal berezia sortu dugu. Bertan hainbat arlo jorratuko ditugu: eskualde mailako albiste esanguratsuenak zabalduko ditugu, Naia Aizpurua kazetariak gai ezberdinak jorratzen dituen saioa egingo du eta Debabarreneko agenda alternatibo bat eskainiko dugu astero. Euskarazko edukiak eskualde mailan jorratu eta euskararen alde gure alea jartzeko modua da.

Hiru hamarkadatik gorako ibilbidea, begirada etorkizunean

1992an sortu zen ...eta kitto! Euskara Elkartea, euskararen normalizazioan eragiteko helburu argiarekin. Ordutik hona, testuinguruak eta tresnak aldatu dira, baina xedea bera da: euskararen erabilera sustatzea eta Eibarko euskaldun-komunitatea indartzea. Ibilbide horretan, hedabidea funtsezko tresna izan da, baina ez bakarra. Elkartea, komunikabideaz harago, euskararen aldeko hainbat proiektu, programa eta ekimen garatzen ditu egunerokoan.

Etorkizunari begira, bide horretan sakontzen jarraitu nahi dugu: kazetaritza-proiektua eguneratuz, eduki digital eta ikus-entzunezkoak indartuz, eta, batez ere, komunitatearekin lotura estua eutsiz. Euskararen normalizazioa lan kolektiboa da, eta horretan, herritarren eta eragileen inplikazioa ezinbestekoa da.

Horregatik, gonbita luzatzen diegu herritar guztiei: ...eta kitto! elkartearen proiektuaren parte izaten jarraitzeko, euskaraz bizitzeko.



Barixakuak Jolasian-eko jolasak Torrekuako parkean izango dira gaur

Aurreko astean, gaizki-ulertu bat tarteko, ezin izan ziren egin Txaltxa Zelain aurreikusita zeuden jolasak. Hori dela-eta, lerro hauek aprobetxatu nahi ditu ...eta kitto! Euskara Elkarteak bertaratu zire familieei barikamena eskatzeko. Gaur bai, egingo dira jolasak, Torrekuako parkean 17:00etatik 18:00etara 2 eta 8 urte arteko umeentzat. Hurrengo astean, berriz, urtarrilak 30, Urkizuko parkean izango dira jolasak.



Inoizko jendetsuena izango da X. Gilda Lehiaketa

Indartsu dator aurtien Gilda Lehiaketa, 18 tabernak eman baitute izena otsailaren 3, 4 eta 5ean egingo den lehiaketan. Honakoak dira X. edizioan parte hartuko duten tabernak: Akara, Ametsa, Azkena, Baco Leku Ego Gain, Baco Leku Urkizu, Baisi, Banaka, Beleko, Bossa, Depor, Guridi, Kontent, Koskor, Kultu, Nuvola, Topa Leku, Trinkete eta Zelai Bide. Epaimahaiari ez da aldaketarik izango, Mireia Alonso, Josu Mugerza eta Xabier Albizuk jardungo baitute gildarik onenak aukeratzeko. Bi sari emango ditu epaimahaiak, gilda tradizional onenari bata eta berritzaileenari bestea. Horrez gain, herritarrek ere izango dute zer esan, euren botoek erabakiko baitute hirugarren saria. Horretarako bozketarako kutxak egongo dira tabernetan, eta botoa eman duten bezeroen artean sasoiko produktuz osatutako otar ederra zozketatuko da.

ARATOSTEAK 2026
eta kitto!

PREGOIA

Otsailak 13,
barixakua
20:30
Depor
parean
(kaldereroen
kalejiraren amaieran)



PLAY-BACK LEHIAKETA

Otsailak 15,
domeka
17:00
Untzagako
karpan



Izar batzuek inoiz ez dute bere distira galduko

“Zer lortuko zuen hain gazte joan ez balitz”, galdetzen dio bere buruari Ana Guijarro Roman astrofisikariak. Javier Gorosabel Urkiari buruz dabil, Calar Altoko astronomia-behatokian lankide izan zuen eibartarri buruz. Galdera horrek ez du erantzun jakinik, baina jakina da zientzialari eibartarrak laga duen itzala nabarmena izan dela, bere distiraren mailakoa.

Testua **EKHI BELAR ERRASTI**



Gamma izpien eztanda kosmikoen arloa (ingelesez gamma-ray burst edota GRB) izan zen Javier Gorosabelen ikerketa-ardatz nagusia. 200 zientzia-artikulutik gora idatzi zituen eta bere ikerketek 7.000 aitormen baino gehiago izan dituzte. “GRB-en inguruan mundu mailako erreferentea da Javi”, esan digu telefonoaren beste aldetik Ana Guijarrok, baina Javier Gorosabel, Javi edo Firi (horrela esaten zioten lagunek), askoz ere gehiago da bere iritziz: “GRB-en inguruan egindako ikerketak hobetu zituen. Bere lanen kalitateak, behaketari eta analisiari dagokionez batez ere, lehen mailako zientzialaria izatera eraman zuten. Gainera, nazioarte mailan kolaborazio garrantzitsuak egin zituen. Munduko edozein tokitan GRB aipatzen baduzu, Gorosabel datorki-gogora”.

Guijarro Gorosabelen lankide izan zen Calar Alton (Almeria), baino

lehenago ezagutu zuten elkar. Granadako Unibertsitatean Fisika ikasketak egin ondoren, andaluziarrak Astrofisikako doktoretza egin zuen bertan eta han egin zuen topo eibartarrekin. “Astrofisika Institutuan ari zen Alberto Castro Tiradorekin tesia egiten. Orduan, harreman pixka bat izan genuen, baina 2001ean Calar Altoko behatokian lanean hasi nintzenean hasi zen gure benetako harremana”, kontatu digu Guijarrok.

Eibarko enbaxadorea

Guijarro eta Gorosabel lanak batu zituen arren, berehala sortu zen harreman adeitsuagoa euren artean. “Javier hain zen pertsona lagunkoia... Inork ez du gaizki berba egingo bere inguruan”, diosku andaluziarrak. “Ez dakizue ondo zer zenuten Eibarren!”.

Gorosabelek bazekien eibartarra izatea zer zen eta Eibarko aldarria harro zeraman edonora zoala ere



Ana Guijarro astrofisikariak Calar Alto (Almeria) teleskopioan egin zuen lan Javier Gorosabelekin.

(Amsterdameko Unibertsitatean doktoratu ostekoa egin zuen, Kopenhageko Espazioiko Ikerketen Institutuan egon zen eta baita Baltimoreko Hubble Espazio-Teleskopioaren Zientzia Institutuan ere, besteak beste). “Eibarri buruz dena nekien berak kontatzen zuenagatik”, gogoratzen du umorez Guijarrok, “beti zegoen Eibarri buruz berbetan: futbol taldea, bizikletak, mendiak... Euskarazko berba batzuk ere irakatsi zizkidan!”.

Familiarekin ere oso harreman estua zuela dio Guijarrok: “Behin amarekin eta arrebarekin etorri zen behaketak egitera. Amaz maitemindu nintzen, oso goxoa zen”.

Itzal handia

Gauzak horrela, Guijarroren ustez oso garrantzitsua da hilaren 30ean egingo den astronomia-topaketaren bitartez Javier Gorosabeli egingo zaion omenaldia, baina ez da bera

Javier Gorosabel astrofisikari eibartarraren figura gogoratu dugu Ana Guijarro lankidearen bitartez

gogoratzeko antolatu den ekintza bakarra. Izan ere, 1990 KB1 asteroideari Javiergorosabel izena jarri zioten, BOOTES teleskopioen sare globalaren bosgarren teleskopioa Javier Gorosabel Telescope (JGT) izendatu zuten eta Girgillaoko (Nafarroa) behategian hilarri bat jarri zuten bere omenez 2015eko apirilaren 21ean.

Astronomiako profesionalak eta zaleak batzen dituen Espainiako Astronomia Elkartearen PROAM

komisioak, bere aldetik, Javier Gorosabel Saria jarri zuen martxan orain dela urte batzuk. Lehiaketa horren helburua astronomiako profesionalen eta amateurren arteko lankidetzaren bikaintasuna saritzea da, eta Gorosabelen izena darama lan handia egin zuelako zientziaren dibulgazioan eta astronomia zaleen ekarpenak jasotzen eta bultzatzen.

Zientzialari eibartarrak datuak hartzen eta behaketa lanak egiten jarduten zuen, baina bere jakinmina eta pasioa haratago zihoan, eta pasio hori astronomia zaleei ere igorri zien. “GRB-ak nondik datozen jakitea nahi zuenez (oraindik ere ez dakigu zehazki nondik datozen) eta datuak falta zirenez, instrumentazioa garatzen hasi zen eta amateurrei irakasten”, azaldu digu astrofisikariak.

Guijarroren berbetan, oso garrantzitsua da astronomia zaleek egiten duten lana. Gauregun, zaleen kopu-

"Munduko edozein tokitan GRB (Gamma Izpien Eztanda) aipatzen baduzu, Gorosabel datorkigu gogora", Guijarroren berbetan




rua profesionalena baino handiagoa da eta bien arteko elkarlanetik gauza asko lortu daitezke argitu digu. Hain zuzen ere, horretarako sortu zuten PROAM komisioa, profesionalen eta amateurren artean zubi lana egiteko.

Zientzia eta kultura topaketa

Aurtengo Javier Gorosabel Saria, bere 4. edizioan, Eibarren egingo den topaketan banatuko da eta OMEGA Asturiasko Astronomia Elkarteak jasoko du, baina urtarilaren 30eko egitarauak askoz gauza gehiago eskaintzen ditu, zientzia eta kultura uztartuz Gorosabel gogoratzeke.

Ekitaldia Coliseo antzokian egingo da 18:30etik aurrera. Bertan, Tekniker ikerketa zentroak aurkezpen labor bat egingo du Azterna Sinoptikoak antzemateko Teleskopio Handiaren garapenean egiten ari diren lanari buruz; Iñaki Ordoñez Iruñeako Planetarioko zuzendariak



Javier Gorosabel Astronomia Topaketen 2. edizioaren kartela.

Urtarrilaren 30ean, Javier Gorosabel Astronomia Topaketaren bigarren edizioa egingo da Coliseo antzokian

parte hartuko du; eta Maite Arroita-jaregi 'Mursego' musikariak Mikel Laboaren 'Izarren hautsa' abestia interpretatuko du.

Gainera, Calar Altoko teleskopioa- rekin konexioa egingo da eta Guijarro egongo da bestaldean. "Tamalez, ezingo naiz Eibarren egon", diosku. Eguraldiak laguntzen badu, honakoa ikusi ahal izango dugu: "Eguzki-sistemako planeta batzuk, galaxiak, nebulosak... Eta horren inguruko azalpenak emango ditugu".



MIKEL ASKASIBAR

Teran eta Berrizbeitia bikain Juan Mugerza Krosean

E.B. Eibarko hainbat atletek hartu zuten parte domekan LXXXII. Juan Mugerza Nazioarteko Krosean, eta horietako batzuek emaitza esanguratsuak lortu zituzten. Esate baterako, Eibarko Klub Deportiboko Julen Teran 24. izan zen helmugan (33:21) eta Beharri Kirol Klubarekin lehiatu zen Pello Berrizbeitia atzetik sartu zen, 25. postuan (33:28).

Gizonezkoen maila absolutuan Deporreko beste atleta batzuk aritu ziren. Mikel Arriola 45. izan zen (35:52), Eneko Fernandez 49. (36:20) eta Pablo Zabala 72. (38:55).

20 urtez azpikoen proban, Ugaitz Gartzia 14. sailkatu zen (19:00), eta 12 urtez azpikoetan, Deporreko Atletismo Eskolako lau atleta lehiatu ziren: Isabel

Pita Lozano (6:07), Jule Auzmendi Marquez (6:09), Maddi Obanos Larreategi (6:28) eta Luke Litago Lasuen (6:35).

Yavi eta Aregawi irabazle

Maila absolutuan, emakumezkoen kategorian Bahreineko Winfred Yavi izan zen irabazlea, eta minututik gorako aldea atera baitzion Sheila Jebet kenyarrari. Tunisiako Marwa Bouzayani izan zen hirugarren.

Gizonezkoen proban Berihu Aregawi izan zen garaile. Ez zen garaipen erraza izan etiopiarrarentzat, zazpi segundora sartu baitzen helmugan Saymon Amanuel eritrearra. Hirugarren Said Mechaal espainiarra izan zen.



145 lagun Grappling Revolution Series-ean

E.B. Aurreko zapatuan, urtarrilak 17, Grappling Revolution Series I txapelketa antolatu zuen Sakura Team klubak, Eibarko kiroldegiko karate aretoan. Nogi (kimonorik gabeko jiu-jitsua) izeneko modalitateko borroken lehiaketa izan zen eta Euskal Herriko 145 atleta inguru elkartu ziren bertan. “Ez

genuen hainbeste jende espero, arrakastatsua izan zen”, taldetik esan digutenez.

Guztira, 23 kategoriatan banatu zen txapelketa, adin eta sexuaren arabera banatuta. Taldekako kategorian, txapela etxean geratu zen, Sakura Team izan baitzen irabazlea.



Urbat B-k garaipen garrantzitsua lortu du Euskal Herriko Ligako 1. mailari eusteko

E.B. Etxetik kanpo jokatu dituzte asteburuko partidugehienak Urbat Urkotronikeko taldeek eta nahiko txukun aritu dira, garaipenak eta porrotak eskuratuz.

Seniorretan, 2. Nazionalean dabilen gizonezkoen taldeak etxean jokatu zuen, baina galdu egin zuen CN Metropolitoren aurka, 12-18, eta azkenengo postuan jarraitzen du.

Urbat B-k, bere aldetik, jardunaldi

bikoitza zuen eta etekina atera zion. Izan ere, barixakuan CDW Urgara Txingudiri egin zion bisita eta 4-23 irabazi zion, mailari eusteko borrokan garaipen garrantzitsua eskuratuz. Zapatuan, oster, Leioari egin zion bisita eta 14-10 galdu zuen.

Euskal Herriko 1. Mailako emakumezkoek CD Larraina izan zuten aurkari eta 5-17 gailendu ziren, sailkapeneko 5. postuari eutsiz.

Malapek ihes egin du futbol zaletuaren lidergoan

E.B. Ezustekoa gertatu da futbol zaletuaren ligan eta Malape Tabernak eskura du txapelketa. 7. postuan doan Garajes Garciak 3-2 irabazi zion Xania bigarren sailkatuari eta, Malapek Baserriri 8-1 irabazi ondoren, sei puntuko alde atera-tzen dio orain sailkapenean. Talde biak elkarren aurka arituko dira domekan.

Hirugarren postuan Bar Maren dago, baina atsedeen hartu du azkenengo jardunaldian eta lehen bi sailkatuek baino partidugutxia-gio du jokatur. Dena dela, liderrarengandik zazpi puntura dago eta Malapek huts egin beharko luke harrapatu ahal izateko.

SAILKAPENA

1. Malape Taberna, 33 puntu
2. Xania Taberna, 27 puntu
3. Bar Maren, 26 puntu
4. Bergara Pneumatikoak, 23 puntu
5. Kalaka Buenos Aires, 18 puntu
6. Adahi Etxegi, 16 puntu
7. Garajes Garcia, 16 puntu
8. Limpiezas Rueda, 6 puntu
9. Baserrri, 0 puntu

Talde kanariar-eibartarrak badu maillota

E.B. Kanariar Uharteetako eta Euskal Herriko txirrindulari gazteei etorkizunean aurrerapausoak bermatzeko akordioa sinatu zuten azaroan Eibarko Klub Deportiboak Gran Canaria Bike Team-ek (GCBT) eta, orain, maillot berria aurkeztu dute. "Klub Deportiboak, erabaki honen bitartez, oinarritzko txirrindularitzaren formakuntza eta garapenarekin duen konpromisoa indartzen du", eibartarren berbetan.

Horrez gain, Imanol Isasa Kirol Zuzendariaren hitzetan, bi instituzioek helburu bera dute, txirrindulariez gain etorkizuneko pertsonak osatu eta trebatzea: "Bi instituzioen arteko akordioa naturalki jaio da, haien filosofia txirrindulari gazteei aukera errealak ematea baita bese-telako formakuntzak ahaztu gabe".

Taldeak datorren denboraldian erabiliko duen arroparen diseinua joan den eguaztenean aurkeztu zen.



ASTEBURUKO AGENDA

FUTBOLA

Emakumezkoen 1. Maila

Real Sociedad - EIBAR (etzi, 12:00)

Gizonezkoen 2. Maila

EIBAR - Almeria (etzi, 16:15)

Gizonezkoen 2. Maila RFEF

Alaves B - EIBAR B (etzi, 12:00)

Gizonezkoen 3. Maila RFEF

EIBAR C - Santurtzi (bihar, 16:00)

Erregionaleko Ohorezko Maila (gi)

Tolosa - URKI (bihar, 16:30)

Erregionaleko Gorengo Maila (gi)

Zumaia B - EIBARTARRAK (etzi, 15:30)

Jubenilen Ohorezko Maila (gi)

EIBAR - Vasconia (etzi, 12:00)

Jubenilen Nazional Liga (gi)

Indautxu - EIBAR B (etzi, 18:00)

Jubenilen Euskal Liga (gi)

URKI - Añorga (bihar, 15:30)

FUTBOL-ZALETUA

• L. Rueda - Adahi Etxegi (bihar, 09:00)

• Kalaka Bs. As. - Bar Marem (bihar, 10:30)

• Baserri - Garajes Garcia (etzi, 09:00)

• Xania - Malape (etzi, 10:30)

• Atsedena: Bergara Pneumatikoak

ESKUBALOIA

Zilarrezko Maila (em)

EIBAR ESKUBALOIA - Zarautz (bihar, 19:00)

1. Maila Nazionala (gi)

EIBAR ESKUBALOIA - Tolosa (bihar, 16:45)

Seniorren 1. Lurraldekoa (em)

Txingudi - E. ESKUBALOIA B (bihar, 15:30)

SASKIBALOIA

Gipuzkoako 1. Maila (gi)

Take Orbela - ARTE. JUANTXO (bihar, 20:00)

Gipuzkoako 2. Maila (em)

EIBAR SASKIBALOIA - Luberrri (bihar, 16:00)

WATERPOLOA

2. Maila (gi)

URBAT - Tres Cantos (bihar, 18:30)

Euskal Herria Liga (em)

URBAT - Askartza B (gaur, 21:15)

Kirol albiste gehiago
gure webgunean



Fernando Bidartek Baineti saldu dizkio Aspe enpresaren partizipazio gehienak

E.B. Aldaketa garrantzitsuak ari dira gertatzen pilotaren munduan. Izan ere, Fernando Bidartek, orain arte Aspe enpresaren jabea izan denak, bere akzio gehienak eskualdatu eta Baineti saldu dizkio, hau da, pilota munduko beste enpresa handiaren jatorrizko enpresari, Baikori.

Asteburuan bolo-bolo ibili zen albistea eta astelehen goizean Bidartek prentsaurrekoa eman zuen Debegesaren egoitzan, Azitaingo poligonoan, azalpenak eskaintzeko. "Osasun kontuengatik eta ilusio faltagatik laga diot pilota-enpresaria izateari", arrazoitu zuen Bidartek. "Esku-pilotaren onura eta enpresaren eta bertako langileen egonkortasuna bilatze aldera, Aspe enpresako partizipazio gehienak Bainet taldeari eskualdatu dizkiot", gehituz.

Erabaki "zaila, baina beharrezkoa" dela adierazi zuen Bidartek, baina bere familiak partaidetza "sinboli-

koa" izaten jarraituko duela zehaztu zuen, berak inongo kargurik hartuko ez duen arren, "ez aholkulari ez ezer, zerbait sinbolikoa baizik".

Enpresaren jabe berria Iker Moreno Morán da, orain arte Baineteko (esku-pilotako enpresen irudi eta publizitate eskubideak kudeatzen eta ustiatzen dituen enpresa) finantza zuzendari eta gerentziaren ondoko lanetan aritu dena.

Hainbat hedabidek jakinarazi dutenez, erabakiak ezustekoa eragin du pilotarien artean, baina printzipioz, Aspek izenari, langileei eta taldean dauden pilotariei eutsiko die, eta egoitza Eibarren izaten jarraituko du, baina Baineten menpe egongo da; Aspe marka besterik ez da izango. "Ez dakit nola geratuko den Aspe. Jabetza Bainet taldearena da, baina enpresen arteko lehia izango da. Aspeko espirituak bere horretan jarraitzen du", esan zuen Bidartek.

MAIDER BELDA • Psikopedagogoa

“Adimen gaitasun handiei buruzko mitoekin apurtu nahi dugu”

JASON fundazioko Maider Belda eta Olatz Alberdi gaitasun handiak dituzten haurren arloan espezializatutako profesionalak dira. Askotan gurasoek umeen adimen gaitasun handiak ez dituzte ondo ulertzen, eta horrek frustrazioa dakar. Domeka honetan Ipuruako Merkatu Plazan egongo dira, 11:00etatik aurrera, gai horren inguruan informazioa eman, estereotipoak apurtu eta familiei, irakasleei zein interesa duten herritarrei tresna baliagarriak eskaintzeko helburuarekin. Hitzaldia gazteleraz izango da.



Testua ANA AIZPURUA

Hitzaldiaren izenburua sendoa da: “Gaitasun handiak”. Zer partekatu nahi duzue jendearekin?

Batetik, gaitasun handien kontzeptuaz hitz egin nahi dugu. Gero eta ezagunagoa da, eta jendea pixkanaka ulertzen ari da ez dela soilik CI edo zenbaki kontua, baizik eta informazioa prozesatzeko, mundua ulertzeko eta hari erantzuteko modu desberdin bat.

Hitzaldiaren helburuetako bat gaitasun handiei buruz dauden mitoak apurtzea dela diozue.

Bai, zalantzarik gabe. Askok uste dute gaitasun handiak izateak eskolan oso azkar ikastea eta beti nota bikainak ateratzea dakarrela, eta ez du zertan horrela izan. Baliteke gaitasun horiek beste eremu batzuetan adierazten ari izatea. Beste uste zabaldu bat da gaitasun handiak izateak arazoak ekartzen dituela derrigorrez, eta hori ere ez da egia. Gaitasun handiak ez dira arazo bat. Zailtasunak desorekak sortzen direnean agertzen dira: ingurunea egokitzen ez denean edo pertsonak bere desberdintasuna ulertzen ez duenean eta nola konpentsatu ez dakienean.

Nola lagundu ahal zaie haur horiei?

Kontua ez da dagoeneko distira egiten duten haurrei soilik aukera gehiago ematea. Gakoa da estimulazio-eta laguntza-espazioak eskaintzea, eta hortik abiatuta ikustea non eta nola lor dezaketen distira egitea. Hitzaldian nirekin batera izango da Olatz Alberdi, “La Cueva del Talento”koa. Talentuaren garapenean eta

proiektuak sortzeko laguntzan lan egiten du berak. Askotan pentsatzen dugu lehenik nabarmendu behar dela laguntza jasotzeko, eta ikuspegi honetan kontrakoa da: zer eskaini dezakegun aztertzen dugu, pertsona horrek barruan duen hori atera dezan.

Beste mito batek genero ikuspegiarekin zerikusi dauka.

Bai, datuek argi erakusten dute: zazpi mutiko identifikatzen diren bitartean, hiru neska baino ez dira identifikatzen. Zergatik gertatzen da hori? Baliteke neskek hobeto kamuflatzen jakitea, probek nolabaiteko alborapena izatea edo gure begirada bera ere baldintzatuta egotea.

Alderdi emozionalak ere pisu handia izango du hitzaldian...

Guretat oinarria da. Pertsona batek seguru sentitzen badu bere burua, auto-kontzeptu argia badu eta inguruneak lagunduta sentitzen bada, askoz errazagoa da proiektuak martxan jartzea, huts egiteari beldurra galtzea eta norbera izatera ausartzea. Gure familietan ere gaitasun handiko pertsonak daude. JASON Fundaziotik, gure seme-alabak pixka bat nagusitu direnean garatu ditugun estrategiak beste pertsona batzuekin ere aplikatzen hasi gara. Norbera ezagutzeko, onartzeko eta maitatzeko espazioak eskaintzen ditugu, eta ikas-tetxeentzako formakuntzak ere bai, gaitasun handiak dituzten ikasleei nola lagundu jakin dezaten eta tresna errealak izan ditzaten.



Itziar Yagüe & Paul San Martín domekako Musika Klubean

S.H. Domekan, urtarrilaren 25ean izango da Itziar Yagüe abeslariak eta Paul San Martín pianistak elkarrekin emango duten kontzertua, 19:00etan Coliseo antzokian. Bessie Smith bluesaren mito handia omentzeko emanaldia eskainiko dute, 20ko hamarkadako ikuskizunen eta grabazio originalen izaera birsortzen duen formatu intimo batean. Paul San Martín eta Itziar Yagüe 2021ean hasi ziren elkarrekin. Biak ere Bessieren miresle izanik, ia berehala piztu zen piano eta ahots bikote bat sortzeko ideia, blueswoman honen figura ezagutzera emateko. Sarrerak 10 euro balio du (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).



“Go!azen” musikalaren saio bikoitza hartuko du Coliseok

S.H. Hamabigarren denboraldia bete du *Go!azen* EITB-ren telesail arrakastatsuak, eta bihar emanaldi bikoitza egingo dute aktoreek Coliseo antzokian, 17:00etan eta 19:00etan. Bi emanaldietarako sarrera ia guztiak salduta daude, baina oraindik bakarren batzuk erosteko aukera badago (12 euro, 8,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Denboraldi honetako protagonistetako bat Jon Alonso eibartarra da, eta bihar pozarren igoko da Coliseoko taula gainera, etxean abesteko.



Zabaldute Zapatuetako Tailerretarako izen-ematea

S.H. Astelehenaz geroztik eman daiteke izena Zapatuetako Tailerretan parte hartzeko. Saioak Portalean egingo dira, otsailaren 7an, 21ean eta 28an, eta hauek dira landuko dituzten gaiak: Zentzumeneren azterketa (HH 3. mailako haurrak + gurasoak), Mundu zientifikoa ezagutzen (LH 1. mailako haurrak + gurasoak), Sorkuntza eta teknologia (LH 2. mailako haurrak + gurasoak), Akrobaziak (LH 3. eta 4. mailako haurrak) eta Adierazpen artistikoa (LH 5. eta 6. mailako haurrak). Informazio gehiagorako eta izena emateko (epea urtarrilaren 30era artekoa da) Udalaren webgunera jo daiteke.

Mireia Agirrebeñaren “5.393 arrazoi” erakusketa eta collage tailerra Topalekun

S.H. Astelehenean zabaldute zuten Mireia Agirrebeña Uberaren *5.393 arrazoi* izenburuko erakusketa Topalekun. Otsailaren 1era arte egongo da ikusgai, 18:30etik 20:30era astelehenetik barixakura, eta 12:00etatik 14:00etara eta 18:30etik 20:30era asteburuetan. Erakusketarekin batera, urtarrilaren 27an (martitzena) collage tailerra egingo dute, 18:30ean. Informazio gehiagorako zein izena emateko, 638 284 912 zenbakira mezua idatzi (WhatsApp).





Otsailaren 7an hasiko dira Aratosteak, koko-dantzen eta “napar-mex” doinuen erritmora

S.H. Eibar berriz ere kolorez, musikaz eta umorez beteko da Aratosteetan, otsailaren 7tik 17ra. Udalaren egitarauak kalejirak, tailerrak, lehiaketak, erromeriak eta dantzaldiak biltzen ditu, eta laster emango dute ezagutzera Aratosteetako kartel lehiaketako irabazlea, lanak aurkezteko epea amaitu da eta.

Kezka dantza taldearen eskutik ospatzen diren koko-dantzeekin hasiko dira Aratosteak Eibarren, otsailaren 7an (zapatua). Goizean goizetik irtengo dira kalera koko-dantzari eta kokomarruak: 08:30ean Errebal Plazan lehen agerraldia egin eta, jarraian, baserrietarako bidea hartuko dute, bazkaltzeko orduraino koko-eskean ibiltzeko. Aurtan Mandiola eta Otaola-Kiñarra auzoetara joango dira. Eta arratsaldean, 18:30etik aurrera, berriz ere Errebalen elkartuko dira, Mauxitxa txarangarekin batera erdialdeko kaleetan kalejira egiteko. Azken koko-dantzak eta kantuek Errebalen egingo dituzte, 21:15 aldera. Kezka dantza taldetik gogorarazi dutenez, nahi duenak hartu dezake parte koko-dantzetan. Asmo horrekin, dantzak ikasteko entsegua egingo dute Errebalen, otsailaren 5ean (eguna), 19:00etatik 22:00etara. Koko-jantziak ere egun horretan banatuko dituzte.

Aurtan, gainera, Aratosteetan murgiltzen joateko kontzertua antolatu dute egun horretarako (otsailaren 7rako): 19:00etatik aurrera Los Zopilotes Txirriaos talde nafarra arituko da kantuan, Untzagako karpan. Bestetik, astelehenean (urtarrilaren 26an) zabalduko da Udalak antolatzen dituen koadrilen kalejira-lehiaketan eta tabernen apainketa-lehiaketan izena emateko epea. Azken urteotan bezala, www.eibar.eus helbidean eskuragarri egongo den formularioa bete beharko da izena emateko, eta lehiaketari buruzko xehetasunak ere bertan kontsultatu ahalko dira.



Danborradaren kontzertua emango dute domekan

S.H. Usartza Txistulari Taldeak danborradaren kontzertua antolatu du aurten ere, Donostian amaitu berri diren sansebastianak gurean ere ospatu nahi dutenen gozamenerako. Urtarrilaren 25ean (domeka) izango da, 12:30ean, Coliseo antzokian. Bertan parte hartuko dute Usartza Txistulari Taldeak, Eibarko danborradako kideek eta metal boskoteak. Aurtengo kontzertuan Eibarko txikien danborradako partaideak ere egongo dira.

Urtarrilaren 31n egingo den Zapatuko Ipuinerako izen-ematea

S.H. Josune Garcia de Bikuña ipuin kontalariaren eskutik, urtarrilaren 31n izango da Zapatuko Ipuina egitasmo hurrengo saioa: *Gora bihotzak!*, lau urtetik gorako umeentzako. Portaleko areto nagusian egingo da, 12:00etan, eta joan nahi dutenek aurretik izena eman beharko dute, Udalaren webgunean dagoen formularioa beteta (gaur da azken eguna). Plaza kopurua mugatua da, aforoa bete arte.

Helduendako klown tailerra

S.H. Hileroko azken zapatuetan egin ohi den bezala, klown tailerra egingo dute urtarrilaren 31n, 10:00etatik 12:00etara, Ipuruko Merkatu Plazan. David Suarez de la Peña *Txeli* arituko da irakasten, eta hastapen mailako ikastaroa izango da, helduei zuzendutakoa. Izena emateko telefono zenbaki honetara deitu daiteke: 649 59 27 97 (Txeli).



ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

		2			5		6	
4				8		3		
			3			5	1	
				6	8	2		
	6		7		2		3	
		7	4	9				
	4	6			7			
		8		4				3
	1		5			6		

SUDOKUA

6	9	2	8	9	1	7	4
1	2	5	7	6	9	8	3
8	9	7	4	1	5	6	2
7	3	4	9	2	8	1	6
2	5	6	8	3	7	4	9
9	1	8	6	4	7	2	5
5	7	3	1	9	4	6	8
6	4	3	2	7	1	8	5
9	8	1	5	6	8	7	4

1	4	8	2	9	6	5	7
2	6	3	1	5	7	4	9
7	9	6	8	4	3	1	6
6	9	5	2	4	8	3	1
6	9	4	2	8	5	3	1
8	5	1	2	7	6	9	4
5	4	2	7	1	6	3	9
4	8	6	9	7	1	2	3
9	2	3	5	1	8	7	4
7	1	3	6	9	4	8	2

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

2		8		9		7		3
4								
			2		5	9		
5	4			3				
	8		1		7		3	
				8			6	9
		1	3		8			
								2
7		5		6		8		1

LETRA-ZOPA

K	E	A	L	V	O	A	H	S	A	C	E	A
O	L	A	L	M	A	G	E	O	E	A	S	D
L	A	G	U	N	A	K	X	E	A	A	K	N
K	H	A	U	L	K	I	A	A	I	A	O	M
M	U	P	R	A	O	L	K	S	E	E	L	O
A	L	M	R	K	E	A	P	L	O	L	A	T
D	K	A	L	A	L	I	S	N	I	O	R	X
K	O	E	N	O	S	A	K	L	E	L	A	I
A	U	S	A	N	K	E	S	A	O	Y	A	L
M	A	A	R	A	A	X	E	E	S	L	M	A
E	A	O	R	A	R	K	A	L	A	L	L	C
L	C	I	K	A	S	L	D	A	S	A	E	I
M	A	H	A	I	A	S	O	R	C	L	C	A



Urtarrilak 23 - 29

BARIXAKUA 23

BARIXAKUAK JOLASIAN

17:00/18:00 Bi eta zortzi urte bitarteko haurrentzat jolasak, doan...eta kitto! Euskara Elkartek antolatu-tuta. Torrekuako parkea.

PAILAZOAK

18:00 Txanpon baten truke", Txintxeta, Klipa eta Txorroak pailazoen ikuskizuna, ...eta kitto! Euskara Elkartek antolatu-tuta. Coliseo.



FUTBOLIN TXAPELKETA

19:00 Futbolin Txapelketa. 10 euro (bikoteko). Jasotako dirua irabazlearentzat. Beleko taberna.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

19:30/21:30 Kalez-kale. Antzerki jardunaldiak Lekim Konpaniarekin.



ZAPATUA 24

ASTELENA HAUR PARKEA

11:00/14:00 eta 16:30-20:30 Astelena Haur Parkea. 3 euro (doan EMGI-ren bonoarekin). Astelena frontoia.

HITZALDIA

11:30/13:30 "Energia berriztagarrien sorkuntza eta burojabetasuna", Goiener elkarteak Santiago Ochoa de Eribarren eskutik. Euskaraz. Ipuruako Merkatu Plaza.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

12:30/14:30 Kalez-kale. Antzerki jardunaldiak Lekim Konpaniarekin.

MUSIKALA

17:00 eta 19:00 Go!azen 12.0". 12 euro (8,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.



KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30 Haur Hezkuntzako ume (2-5 urte) eta gurasoentzat jolasteko gune irekia. Ipurua kiroldegia.

DOMEKA 25

ZUHAITZ-LANDAKETA

10:00 Eibarko Baso Bizia elkarteak antolatutako zuhaitz-landaketa (Eriano lursailetan). Asola-Berri elkartetik abiatuko dira.



HITZALDIA

11:00/14:30 Adimen gaitasun handien inguruko hitzaldia, Maider Belda eta Olatz Alberdiren eskutik. Ipuruako Merkatu Plaza.

DANBORRADA

12:30 Danborrada kontzertua, Usartza Txistulari Taldearen, Eibarko danborradako kideen eta metal boskotearen eskutik. Doan. Coliseo.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

12:30/14:30 Kalez-kale. Antzerki jardunaldiak LEKIM Konpaniarekin.

TAILERRA

15:00/19:00 Meshtastic tailerra. Izen-ematea: 25 euro (kit-a sortzea). Plaza mugatuak. Izen-ematea eta informazioa: 614131174 (WhatsApp). Ipuruako Merkatu Plaza.

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30 Haur Hezkuntzako ume (2-5 urte) eta gurasoentzat jolasteko gune irekia. Ipurua kiroldegia.

MUSIKA KLUBA

19:00 Itziar Yagüe & Paul San Martinen kontzertua. 10 euro (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.



ASTELEHENA 26

KANTU SAIOA

19:00 Euskal kantuak ikasi eta praktikatzeko saio irekia. Arrate Kultur Elkartea.

MARTITZENA 27

TAILERRA

18:30 Collage tailerra, "5.393 arrazoi" Mireia Agirrebeñaren erakusketaren harira. Topaleku.

EGUENA 29

HITZALDIA

10:00/12:00 "La influencia del río Ego y la industria de Eibar", Jesus Gutierrez Aros historialariaren eskutik. Ikasten elkarteak antolatuta. Sarrera libre. Portalea.

ERAKUSKETAK

Otsailaren 1era arte

"5.393 arrazoi", Mireia Agirrebeña Uberaren erakusketa. Topaleku.

Otsailaren 1era arte

"Errobera artean". Eibarko Armagintzaren Museoa.

Otsailaren 16ra arte

"Estali nazazu lorez", Jon Amorrorturen pintura erakusketa. Portalea.

Urtarrilaren 30era arte

"Ikusi, entzun eta isildu" Atalanta Ares-en zeramika erakusketa. Andretxea.

ZINEA COLISEO



"Rental family"
KOMEDIA. DRAMA
2025/Japonia /103'
Zuzendaria: Hikari
Aktoreak: Brendan Fraser,
Takehiro Hira, Mari Yamamoto
Komedia dramatikoak

1 ARETOA

- 24an : 22:30
- 25ean : 17:00, 20:00

ANTZOKIA

- 26an : 19:30



"Homo argentum"
KOMEDIA.
2025/Argentina /98'
Zuzendaria: Mariano Cohn,
Gastón Duprat
Aktoreak: Guillermo Francella,
Eva De Dominici, Clara Kovacic
Komedia beltza

1 ARETOA

- 26an : 19:30



"Song Sung Blue"
DRAMA. ERROMANTZEA.
2025/AEB /131'
Zuzendaria: Craig Brewer
Aktoreak: Hugh Jackman, Kate
Hudson, Michael Imperioli
Musika. Benetako gertaeretan
oinarritua

2 ARETOA

- 24an : 22:30
- 25ean : 20:00
- 26an : 19:30



"Abuela tremenda"
KOMEDIA
2026/Espainia /88'
Zuzendaria: Ana Vázquez
Aktoreak: Elena Irureta, Toni
Acosta, Carla Pastor
Familia zinema

2 ARETOA

- 25ean : 17:00

Virginia Herrera Cañas

4. URTEURRENA
2022/01/25

Lau urte igaro dira zu barik, zu gogoratzen eta zure falta sumatzen.
Baina betirako biziko zara gure bihotzean Vir, asko maite zaitugu.
- Etxekoak -





Maria Jesus Arriola Arrizabalaga

2025/01/14

Lagun on bat aurkitzea oso zaila da, galtzea hainbat zailagoa, eta ahaztea ezinezkoa

- ZURE EIBARKO KUADRILLA-



943 20 67 76

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzen ditugu.



Zorionak **IRAIA**, neska handi! Atzo 7 urte bete zenduaz. Patxo handi bat etxekuen partez, jarraitu horren alai!



Zorionak **JULEN!** Gure mutil haundia! Gaur urtaririlak 23, 9 urte bete dozuzelako. Musu haundi bat Mikel eta famelixa guztiaren partez.



Zorionak **MARTINA!** Urtarrillaren 29xan 4 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi-haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak **JARE!** Hilaren 26xan 7 urte beteko dozuz eta. Musu haundi bat aitxa eta amaren partez. Maite zaittugu!



Zorionak **MARTI-NA!** 20xan 11 urte bete dozuz. Asko maite zaittugu!!




Zorionak **ELENE!** Bixar bi urtetxo beteko dozuz!! Jarraitu zure umore ta jakinmin ase ezin horrekina. Asko maite zaittugu.



Zorionak **MANEX** danon partez! 22xan 5 urte betetziagaittik! Segi beti bezain alai, mutil haundi!



Zorionak **ADRIAN!** Eguaztenian zazpi urte bete dozuz-eta. Musu potolo bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak **DANEL!** Eguaztenian, hillak 21, etxeko txikixak 3 urte bete zittuan. Musu handi bat famelixaren partez.



Zorionak **LAIA** Pacheco! Eguaztenian 9 urte bete zenduaz-eta. Zure ama eta aitxa oso harro daude zutaz.



Zorionak **MAIA!** Bixar 2 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Eleneren partez.



Zorionak **ARATZ!** Hillaren 25ian 6 urte beteko dozuz-eta. Eskerrik asko sei urte bete zorion oparitziarren!



Zorionak **JON!** 4 urte gure etxeko txapeldunak. Jarraitu beti bezain jator. Patxo haundi bat famelixaren partez.



Zorionak **ELENE!** Urtarrilaren 25ian urtetxo bat beteko dozu-eta. Musu haundi-haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Ene-koren partez!



Zorionak **EKHI**, maitxia! Famelixa guztiaren partez 9 urte betetzen dozuzelako. Segi beti bezain alai. Asko maite zaittugu.



Zorionak **ION!** Gaur urtiak betetzen dozuz eta. Besarkada haundi bat lagun guztien partez, ondo-ondo ospatu.



Zorionak **POL!** Domekan 7 urte Potolo ingo ditzuzu!

Iragarki laburrak



943 20 67 76

aldizkaria@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

3. LOKALAK

3.1. Salgai

- Garaje itxia salgai epaitegi azpiko garajeetan. 15 m2. Prezioa adosteko. 686 633 523.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da pertsona nagusiak zaintzeko, interna, externa edota asteburuetan. 642044618.
- Gizona eskaintzen da bana-keta-lanak egiteko eta beste edozein motatako lanetarako. 602824238.
- Eibarren bizi den emakume arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, eta garbiketa lanak egiteko. 641910253. Victoria.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edota haurrak zaintzeko, baita garbiketa lanetarako ere. 633 84 07 08
- Neska euskalduna eskaintzen da haurrak zaintzeko edo partikularrak emateko. Magisteritza ikasketak. 648625209.
- Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egiteko, edota umeak edo nagusiak zaintzeko, orduka, asteburuetan edota interna. 614950669.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lana egiteko edo nagusiak zaintzeko, astelehenetik ostiralera, 13.00etatik aurrera. 620757528.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko etxe, zein ospitaletan, edota garbiketa lanetarako. Soziosanitario ziurtagiriarekin. Edozein ordu eta egunetan. 667060292.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko edota garbiketa lanetarako. Soziosanitario ziurtagiriarekin. Edozein ordu eta egunetan. 631593925.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko deota garbiketa lanetarako. Edozein ordu eta egunetan. 605139585.
- Emakumea eskaintzen da arlo soziosanitarioan lan egiteko. Tituluarekin. Interna edo externa moduan, baita asteburuetan ere. 642578943.
- Gizona eskaintzen da zaintza lanak egiteko Mendaroko ospitalean, egunez eta gauez. 641844485
- Emakumea eskaintzen da goizez etxeak garbitzeko eta pertsonak zaintzeko. 641837075.
- Gizona eskaintzen da era askotako lana egiteko: zaintza lanak, sukaldaritza, eraikuntza... 642383166.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko etxebizitzetan edota ospitaletan. Baita asteburuetan ere. Soziosanitario ziurtagiriarekin. 631 42 56 86
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edota umeak zaintzeko arratsaldean. Baita larunbatetan ere. Esperientzia, erreferentziak eta soziosanitario ziurtagiriarekin. 604120104.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, asteburu eta jai egunetan. Etxe edota ospitalean. 613287661.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, edozein egunetan. Etxe edota ospitalean. 632768653.

4.2. Langile bila

- Estetizista eta fisioterapeuta behar da Eibarko ileapaindegi baterako. Lan giro bikaina. 943 20 8125,

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- Pintura klaseak ume edota helduentzat. Umeak; 4 urtetik aurrera, helduak; edozein adinetakoak. Informazio gehiago www.maitearriaga.com. 668 51 68 93
- DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- Logela osoa salgai: ohea (1,35), armairua, xifonierra eta mesanotxea. 600 66 72 65 (Nerea)

ek!

Jarraitu
gaitzazu gure
difusio kanal
berrietan



WHATSAPP



TELEGRAM



Zure eguneroko albiste boletina!

AURREMATRIKULAK

HAUR, LEHEN ETA DERRIGORRREZKO
BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASTETXEETAN

Otsailaren
2tik 13ra



URKIZU

943 89 91 47



SAN ANDRES

943 20 79 95



J.A.MOGEL IKASTOLA

943 20 84 87



ARRATEKO ANDRA MARI

943 20 72 35



AMAÑA

688 68 72 39

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA

Toki hau ikasteko, deskubritzeko eta etorkizunerantz hazteko leku magiko bat da. Etorriko?

AURREMATRIKULA EGITEKO EPEA
Otsailaren 2tik 13ra zabalik

AURREMATRIKULA ONLINE
www.euskadi.eus/hezkuntza/

EUSKADI GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA SAILE
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



EIBAR BHI
JARDINETZA, 3 B
DBH 3,4 + BATXILERGOAK + ZIG

943 89 92 62
WWW.EIBARBHI.EUS



EIBAR BHI
ISASI, 37
DBH 1,2 + GAUTENAKO GELA OROKORRA

943 89 92 62
WWW.EIBARBHI.EUS